


# ***BALOREZKO PROPOSAMENA***

Atal honetan gure produktua, kasu honetan aplikazioa, definitu eta honen funtzionamendua eta erabilera zehaztu eta azalduko ditugu. Guk aplikazio bat sortuko dugu, bezeroek birziklatzerako orduan erraztasuna izan dezaten produktu bakoitza zein edukinontzietara botu behar duten jakiteko. Honekin, zaborrak ez nahasteaz gain, Lurra planetarentzat onuragarria izango den aurrera pauso bat emango dugu, biztanleria birziklatze prozesuan guztiz murgilduz.

Hasiera batean aplikazioa Euskal Herriko biztanleentzat eskuragarri izango denez, bertako 12 urtetik gorako pertsona orok erabiltzeko aukera izango du, izan ere, hauek mugikorrek izateko aukera izateaz gain, aplikazioari erabilgarritasuna eman diezaiokete.



Gure produktuak biztanleei ondo birziklatzen irakasteko balio du, eskaneatutako produktu bakoitza dagokion edukiontzira zabarrontzira botatzen ikasteko eta bakoitzaren informazio gehigarria jakin dezaten. Horretarako, beharrezkoa da produktu guztiek barra-kodea izatea, bilaketa errazagoa izateko. Baina hau izango ez balute, aplikazioaren goiko aldeko eskubiko zatian lupa bat egongo litzateke, bertan izena jarri eta bezeroa bilatzen ari den produktuaren informazioa azalduko litzateke. Gainera, aurretik esan bezala, bilaketa edo eskaneatzerakoan, informazio gehigarria azalduko da, bai zaborrontzi bakoitzarena, baita produktuaren osaketarena ere.



Aplikazioa eskuragarri egongo da bai Play Storen baita App Storen ere, mugikor ezberdina duten biztanleek aukera izan dezaten oso lagungarria den aplikazioa eskura izateko. Gainera, aipatzekoa da ere aplikazioa dohainik izango dela, gizartearentzako beharrezkoa den behar bat asetzen baitu.

Gure produktuak zenbait atal izango ditu bertan. Hasteko, eta Ecoembes enpresarekin bat eginez, klima aldaketa eta birziklapenarekin zerikusia duten eguneko iragarkiak azalduko dira, erabiltzaileek interesa izango balute, irakurri ahal izateko. Hortaz aparte, aplikazioaren goiko eskuinaldeko zatian poltsatso bat agertuko da, norbaitek Zuzen enpresaren laguntzaz egindako botilak erosi nahi izango balitu, bertan agertuko den linka klikatuz gero, Bask enpresaren webgunera eramango gaitu, beraiek salduko dituztelako botilak. Gainera, produktuak eskaneatu ahal izateko kamara bat egongo da pantailaren behe-erdiko zatian, bertan klikatu eta barra-kodea eskaneatzeko aukera egongo da; eta horretarako aukera egongo ez balitz ere, lupa bat azalduko da kamararen ondoan, bezeroak nahi dituen produktuak bilatzailearen bidez bilatu ahal izateko. Bukatzeko, eta erabiltzaileekin harremana gertukoa





izateko, kamera ikonoaren beste aldean iruzkinen ikurra egongo da, bertan klik egindakoa, beraien zalantzak edo kexak azaltzeko esparru bat izango dute. Azpimarratzekoa da ere, produkturen bat aplikazioan sartuta egongo ez balitz, bezeroak eskanerra pasatakoan beraien argazkia igotzeko aukera izango dutela. Horrela, guri iradokizuna iritsiko zaigu eta informazioa txertatu eta zein edukiontzietara bota behar den zehaztuko dugu.

Aplikazioa erabilterraza eta praktikoa da, edonon zaudela erabil daiteke eta bertan txertatzen dugun informazioa irakurtzerraza eta erabilgarria da. Gure aplikazioa eskuragarri duten euskaldunek erabiliko bagenu, aldaketa nabaria islatuko litzateke gure Lurra planetan, eta oso lagungarria izango litzateke etorkizuneko zenbait arazo larri, gaur egun ikusgarri direnak dagoeneko, ekiditeko. Denok behar dugu denon laguntza, bizirik urte asko iraun nahi badugu, gutxienez.

